


# Denbora



## 1

### Margotu eta asmatu

Zerbait ikusten al duzu? Zenbaki bakoitza dagokion kolorean margotzen baduzu, ezkutatzen den irudia geratuko da agerian.


Zer ezkutatzen da?

- 1-gorria
- 2-horia
- 3-berdea

- 4-arrosa
- 5-urdina

## 2 Galdera erantzunak

Galderak irakurri eta erantzun egokia topatu ostean, margotu irudiko hutsuneak zehaztutako kolorearekin. Zer ezkutatzen da atzean?



**4.- Zein dira MANTANGORRIko azken orriko protagonista berriak?**

(Erantzun egokia horiz margotu).

- 10.- Belardo.
- 11.- Osaba Florentino.
- 12.- Galtxagorriak.

**5.- Nola izena du Shin Chanen txakurrak?**

(Erantzun egokia horiz margotu).

- 13.- Elur.
- 14.- Txuri.
- 15.- Bizkor.

**6.- Non ospatuko da Gipuzkoako bertsolari txapelketaren finala?**

(Erantzun egokia horiz margotu).

- 16.- Irun.
- 17.- Donostia.
- 18.- Andoain.

**1.- Non ospatuko da Nafarroa Oinez hurrengo urtean?**

(Erantzun egokia horiz margotu).

- 1.- Lodosa.
- 2.- Lizarra.
- 3.- Viana.

**2.- Nola izena du Berri Txarrak taldearen azken diskoak?**

(Erantzun egokia laranja margotu).

- 4.- Berri Txarrak.
- 5.- Eskuak/Ukabilak.
- 6.- Libre.

**3.- Nongotarra da Aimar Olaizola pilotaria?**


(Erantzun egokia horiz margotu).

- 7.- Iruñea.
- 8.- Goizueta.
- 9.- Hernani.

# -pasa

## 3 Puzzlea

Bixente itsasontzi honetako kapitaina da. Bere itsasontziari argazki bat atera dio. Ekaitz batean, ordea, mila zatitan apurtu zaio.




Lagunduko al didazu itsasontziaren irudia osatzen?

(a) (b) (c) (d) (e) (f) (g) (h) (i)

## Ukitu eta gelditu!

Ziurrenik denek jolastuko zenuten noizbait joko honetara. Oso jolas sinplea da, baina, era berean, dibertigarria da oso



- 1 Jokalari bat geldirik geratuko da. Geldirik dagoena gainerako jokalarien atzetik joango da korrika, ea baten bat ukitzen edo harrapatzen duen.
- 2 Bitartean, gainerako jokalariek ihes egingo dute, geldirik geratu den jokalaria ukitu ez ditzan.
- 3 Geldirik zegoen jokalaria norbait ukitzea lortzen duen unean, jokari horixe izango da gainerakoen atzetik ihesi abiatuko dena, norbait harrapatu arte. Ordu arte guztien atzetik ihesian ibili den jokalaria, oraingoan, besteekin batera alde egiten saiatuko da, harrapatzaile berriak ukitu ez dezan.

## 4 Buruari eragin

Zer moduz moldatzen zara matematikekin? Ea buruketa hauen emaitza zuzenak lortzen dituzun. Animo!!!

(a)	$\{(3 \times 7) + (8 - 4) : 5\} \times (7 + 4) =$ <span style="background-color: orange; padding: 2px 10px;"> </span>	(e)	$\{(9 - 7) + (13 - 4) \times 4\} - 17 =$ <span style="background-color: lightgreen; padding: 2px 10px;"> </span>
(b)	$\{(8 : 2) + 9 - 12\} + (27 - 6) =$ <span style="background-color: yellow; padding: 2px 10px;"> </span>	(f)	$3 + (2 \times 7) - (8 + 4) =$ <span style="background-color: orange; padding: 2px 10px;"> </span>
(c)	$\{(10 - 5) \times (6 - 4) : 2\} \times (4 - 1) =$ <span style="background-color: lightgreen; padding: 2px 10px;"> </span>	(g)	$(6 \times 4) : 2 + (9 + 1) =$ <span style="background-color: blue; padding: 2px 10px;"> </span>
(d)	$\{(7 + 5) - (2 \times 3) : (7 - 4)\} + (2 + 2) : 2 =$ <span style="background-color: blue; padding: 2px 10px;"> </span>	(h)	$\{5 \times (2 \times 4) - (7 + 7)\} - 2 =$ <span style="background-color: yellow; padding: 2px 10px;"> </span>